


ANNE FERNANDEZ DIEZ


32.TALDEA

PROIEKTU PERTSONALAREN HAUSNARKETA

OBRAK




Irudia 1. Oliaa taulan, 3/0 F



Irudia 2. Oliaa taulan, 3/0 F

Irudia 3. Oliaa taulan, 3/0 F



Irudia 4. Oliaa taulan, 3/0 F



Irudia 5. Olioa taulan, F



Irudia 6. Olioa taulan, F



Irudia 7. Olia taulan, F



Irudia 8. Olia taulan, F



Irudia 9. Olloa taulan, F 3/0



Irudia 10. Olloa taulan, F 3/0




Irudia 11. Olio a taulan, F



Irudia 12. Bozetoa koadernoan



Irudia 12. Bozetoa koadernoan



Irudia 14. Seriea kokatzeko moduaren proba

EZAUGARRI TEKNIKOAK

- Izenburua: ENTROPIA
- Teknika: Olia taula gainean (*tablex*)
- Neurriak:
 - 3/0 F

IRUZKINA

- Seriearen sorrera. Proiektuaren abiapuntua / Seriearen garapena. Gorabeherak, erabakiak, arazoak.

Hasiera batean, soilik pinturarekin egindako “collage” efektua burutu nahi izan nuen, margo abstraktuen eta errealagoen konbinaketaren bitartez, bata bestearen gainean egotearen efektua lortuz eta dinamismoa eta mugimendua emanez. Paisaia fantastiko moduko bat izan zen lehen koadroan suertatutako emaitza, eta ondorioz, apur bat galdua sentitu nintzen, nondik jarraitu jakin ezean. Bigarrenarekin hasi aurretik, koadernoan hainbat bozeto egin behar izan nituen, ideia argiago batekin jarraitu arte. Dena dela, emaitza ez zen espero nuena izan; nire ustez, alde abstraktuak figuratiboak baino hobeto funtzionatzen zuelako.

Gauzak horrela, kurtsoan zehar ezkutuan egondako alde ez figuratibo hori garatzea aproposa bezain interesgarria izango litzatekela ondorioztatu nuen. Koloreei garrantzia eman nahi izan nien, hauek hartzen duten esanahiari eta baita ere pintzeladen testurei lehentasuna eman nien. Oraingoan, seriearekin identifikatua sentitu nintzen, koadro bat bestearen atzetik egiteko arazorik ez nuela ikustean, oso eroso sentitu nintzen eta gainera izaera berri bat aurkitu dudala uste dut pinturaren alorrean.

- Seriearen aurkezpena eta ondorioak

Nire iritziz, seriearen aurkezpen moduak, koadro bakoitzaren garrantzia berdina hartzen du; honek ere, esanahia hartzen duelako eta, are gehiago, egilearen nortasuna eta izaera airean uzten du, zalantzarik gabe. Seriea modu horretan kokatzearen arrazoiak ugari dira (lehenengo puntuan argazkia ikusgai, irudia 13):

Alde batetik, "amaitu gabearen" ideia islatu nahi izan dut, koadro bakoitza paretan aurkeztu ordez, alderantziz kokaturiko mihise batean ipiniz. Izan ere, serie hau pinturan izan dudana eboluzioa eta garapena irudikatzeko modu gisa ulertzen dut, eta etengabeko ikasketa prozesua sinbolizatzeko modu aproposa iruditu zait.

Aipatzekoa da, nire lana aurkezteko lehenengo bururapena ez zela hori izan. Hasieran egindako bi koadroekin zer egin ez nekiela, beste aldetik margotzea pentsatu nuen, atzealdeei zentzu lasaiago eta baketsuago bat emanez, aurrealdeak zentzu kaotikoagoa zuten bitartean. Hortaz, dualismo moduko bati buruz hizketan egongo ginатеke, txanponaren bi aldeak.

Horrez gain, koadroak zintzilikatzea eta hauen atzean ispiluak ipintzea iruditu zitzaidan ideia hori ulertzeko modu erakargarriena. Dena den, nire buruan eta geroago aurkezpenean gertatuko zen emaitza oso ezberdina izatearen beldur, beste bide batetik joatea erabaki nuen.

Aurrez esan bezala, eboluzioari garrantzia eman nahi izan diot; eta ideia horretatik sortu zen, hain zuzen, horman ipinitako mihisearen ideia. Mihisea alderantziz jarri nuen, aldeaz aurretik klasean margotutako koadro bat delako; horrek, atzean dagoen lanketa irudikatzen du, hau da, kurtsoan zehar egindako ariketek atzean duten emaitza izango litzateke serie hau.

Ez hori bakarrik, aurretik egindako beste lanek kutsu figuratiboa dute, eta oraingo honetan, nire alde abstraktuagoa lantzea erabaki dut. Beraz, mihisea alderantziz jartzeak hartzen duen konnotazio eztabaidaezina da figuraziotik aldentzearena eta abstrakzioari heltzearena.

ERREFERENTZIAK

- Aurrekoak, bitartekoak, ondorengoak / Piktorikoak, literarioak, bestelakoak

David Salle izan da hasiera bateko erreferente piktorikoetako bat; honek, *collage* teknika erabiltzen du sarritan, baina paper-zatiez eta argazkiez gainera, bestelako objektuak ere itsasten ditu, hala nola zeramika-poteak eta hautsitako aulki-hankak.



Robert Rauschenberg: 1950eko hamarraldiaren erdialdean bere elkarketa ospetsuak egiten hasi zen, arte-sormenari buruzko ideiak eta aurreiritziak zalantzan jarritz. Zati margotuz eta benetako objektuz eginiko lan horiei «combine paintings» esan zitzaien (Rebus, 1955). Rauschenbergen lanak

espresionismo abstraktuan zuen jatorria, baina geroztik eta elementu heterogeneoen erabileraz haren estiloak bete-betean egiten zion eraso pintura abstraktuari. Argazkiez eta aurkitutako gauzez zipriztindutako koadroak dira.



Luis Candaudap, fakultateko pinturako irakasle dena, collage itsura duten eta soilik pinturaz eginak dauden koadroak burutzen ditu, efektu bisual ikusgarriak lortuz.




Jon Jauregi Urnietarra izan zen lehendabiziko erreferente, oso koadro dinamikoak egiten ditu, mugimenduz beteak eta kolore oso biziekin.



Seriea egin bitartean irakurri dudan Dan Brownen Origen liburuak, eta bertan azaltzen den entropia terminoak ere inspiratu nau serie hau gauatzeko orduan.

Entropia sistema batek izan ditzakeen azpiegituren kopurua eta azpiegitura horiek izateko duten probabilitatea azaltzen duen magnitude fisikoa da. Oro har, entropiak sistema baten ordenaren eta sisteman gertatzen diren eboluzioen kalitatearen berri ematen digu.




Egitura ordenatua duten sistemek entropia baxua izanen dute, eta egitura hau desagiten den heinean entropia hazi egiten da (izotza urtzen denean adibidez, entropia areagotzen da). Sistemen ordenatik desordenarako duten joeran eta ordena honen aldaketak entropian du eragina.

Entropia hitza grekeratik eratorria da (ἐντροπία) eta jatorrizko esanahia **transformazio edo eraldatze** litzateke.

Termino hau liburuan oso modu zuzenean eta zentzudunean azaltzen du, eta nire koadroekin eta egiten ari nintzenarekin lotura zuzena aurkitu nuen, nire transformazio edo eraldatzearekin primeran egokitzen delako.

Ondorengo erreferentziak

John Walker



Marc Mulders



Anke Roder



Arjan Janssen

